



LEADER PROIEKTUEN JARDUERA ONAK

1.- Egitasmoaren izenburua:

Splashpark Etxebarria

2.- Jasotako dirulaguntzaren deialdiaren urtea: 2021

3.- Jasotako dirulaguntzaren programaren neurria:

- ☐ II. Kap.: Ekintzailetzarako laguntzak.
- ☐ III. Kap: Enpresak sortu, handitu eta modernizatzeko inbertsiorako laguntzak.
- ☐ IV. Kap: Besteren konturako kontrataziorako laguntzak.
- ☒ V. Kap: Udalerrietako berritze, azpiegitura eta oinarrizko zerbitzuetarako laguntzak.
- ☐ VI. Kap: Etxebizitzarako laguntzak.

4. - Proiektuaren helburua:

Splashpark proiektuak beste aukera bat eskaintzen die herritarrei udaldian, eta, gainera, azpiegitura berria gehitu zaio Ibaun parkeari. Parke horretan, *skatepark* delakoa, kirola egiteko azpiegiturak (adinekoentzako *fitness* gunea), komunak eta eguzkitan egoteko esparrua egon dira lehendik.

Etxebarria herri txikia da, igerilekurik ez daukana, ezta igerilekua eduki eta horren mantentzea egiteko baliabiderik ere. Kostaldetik hain urrun ez dagoenez, bertako bizilagunak hondartzara joan ohi dira udan; hala ere, *Splashpark* horri esker, ordezeko jarduera bat eskaini nahi da egunero-egunero hondartzara joan ezin direnentzat, udarako eremu egokia prestatuta.

5.- Inbertsio totala: 165.458,07 euro

6.- Jasotako LEADER dirulaguntza eta beste finantzaketa batzuk:

LEADER: 89.347,36 euro

Finantzatzeko beste iturri batzuk: 30.000,00 euro

7.- Onuraduna:

Etxebarriko Udala (Lea Artibai)

- ☒ Publikoa
- ☐ Pribatua

8.- Lankide edo entitate partehartzaileak:

Etxebarriko Udala (Lea Artibai)

9.- Inbertsio edo aktuazioen lokalizazioa:

Etxebarria, Bizkaia

10.- Proiektuaren deskribapena (alde berritzaileak eta/edo proiektua interesgarria egiten duten atalak azpimarratu, proiektua jarduera onean bihurtzen dituenak):

Splashpark azpiegitura Ibaun parkean dago, Markina-Xemein eta Etxebarria lotzen dituen bidegorrian. Bidegorri hori 2,5 km luze da eta bi udalerrietako herritarrek sarritan erabiltzen dute, aisiaz gozatzeko nahiz kirola egiteko.

Splashpark delakoa hainbat iturrik eta ura botatzen duten «zurrustek» osatzen dute. Ura husteko sistemak modu elkarreragilean jarriko dira martxan, kanoi bidez, lehorreko sakagailu bidez edo arku bidez. Batez ere, 3 eta 13 urte arteko ume-gazteentzat da, 80 metro koadroko eremu batean.

11.- Inpaktua eta emaitzak (zein heinean proiektuak udalerri, eskualde edo erkidegoaren garapenean lagundu duen adierazi):

Splashpark-ek eragin handia izan du udalerrian, azpiegitura berria eskaini die bizilagunei, hots, aisialdiko esparru bat udan herrian geratzen direnei, eta, gainera, beste udalerri batzuetako jendea erakartzeko balio izan du.

Gainera, inguruko herrietako eskoletako ikasleak erakarri ditu azpiegiturak. Kasu askotan, ikasleak etorri dira aste barruan, ikasturte amaierako txangoetan, eta asteburuetan, batez ere, familiak etorri dira. Zurrusten esparruak herri osoari eragin dio, hala nola bertako taberna eta jatetxeei, familia asko eguna ematera etortzen direlako eta herrian jaten edo edaten dutelako.